

gaurko filmak

Miss Cuplé ★
Zuz.: Pedro Lazaga. 86m. Esp. 1959. **11:00 La2**

Turner eta Hooch ★★
Zuz.: Roger Spottiswoode. 95m. 1989. **15:40 ETB1**

Regalo de amor: La historia ... ★
Zuz.: John Korty. 89m. AEB. 1999. **16:30 T5**

Aime ton prochain ★
Zuz.: Detlev Buck. 95m. Ale. 1998. **20:45 Arte**

Le Petit Monde de don Camillo ★★
Zuz.: Julien Duvivier. 105m. Fran-Ita. 1951. **20:50 F3**

Cariño, he encogido a los niños ★
Zuz.: Joe Johnston. 90m. 1991. **22:00 ETB2**

Cascabel ★
Zuz.: Daniel Cebrían. 96m. Esp. 1999. **22:00 C+(e)**

Ils ne pensent qu'à ça ★
Zuz.: Marc Rothemund. 95m. Ale. 2000. **22:10 M6**

Parole de flic ★
Zuz.: José Pinheiro. 100m. Fran. 1984. **22:45 TF1**

Volavérunt ★
Zuz.: Bigas Luna. 114m. Esp. **23:30 TVE1**

Intento de robo ★
Zuz.: Jonathan Heap. 90m. Kan. 1997. **23:45 A3**

La condesa de Hong Kong ★★★
Zuz.: Charles Chaplin. 104m. EB. 1996. **02:45 La2**

Amigo o enemigo ★
Zuz.: John Fawcett. 87m. AEB. 1995. **04:45 A3**

● ★ ★★ ★★★★★
Txarra Eskasa Balekoa Ona Bikaina

MISS CUPLE
★ **La 2 - 11:00**

Zuz.: Pedro Lazaga. Akt.: Mary Santpere, Carlos Miguel. 86m. Espainia. 1959.

Mary Santpereren alde komikoa ulertu eta gozatzeko gai zaretenek baduzue goizean film entretenigarria. Emakume ero histeriko samar horrek izenburuan aipatzen den Cuple andereñoarena egiten du, egun ahaztuta dauzkagun aktoreez inguratuta. Kalitate eskaseko zinta baztergarria da, Lazaga zaharraren lan gehientsuak bezala.

TURNER ETA HOOCH
★★ **ETB1 - 15:40**

Zuz.: Roger Spottiswoode. Akt.: Tom Hanks, Mare Winningham. 95m. 1989.

Roger Spottiswoodek sortutako komedia komertzial arina Tom Hanks aktore nagusi izateko propio egina da, entretenigarria



Sophia Loren eta Marlon Brando.

Chaplinen azkenekoa eta txikiena

LA CONDESA DE HONG KONG ★★★ **La 2 - 02:45**

Zuz.: Charles Chaplin. Akt.: Marlon Brando, Sophia Loren. 104m. EB. 1966.

Charles Chaplin maisuak kameraren atzetik, eta aurretik, berriz, Sofia Loren, Tippi Hedren eta Marlon Brando handiek erraz lortuko dute ikus-entzuleak erakartzea. Chaplin paregabearen azken lan hau berez bitxi eta interesgarri samarra denik ez dut ukatuko, nahiz eta ez duen *Modern Times* edota *The Great Dictator* bezalako harribitxiekin zerikusi handirik, ez eta maisu beraren gainerako lanekin ere. Are gehiago, hau da haren lan txikietakoa. Izenburuan aipatzen den kontesa, ontzi handi bateko luxuzko gelan ezkutatuta bidaiatuko duen emakume lirain eta ausarta da.

eta gustura ikustekoa. Hanksek Hooch zakur azkarraren laguntza izango du, hiltzaile bati aurre egiteko. Tartean, noski, ohiko amodiozko istorio txikia biziko du, nahiz eta trama nagusia zakurraren eta Hanksen arteko harremana duen ardatz. Arrakasta handia izan zuen estreinaldiko garaian eta laster gehitu zioten honakoa baino kaskarxeagoa den bigarren atala.

LE PETIT MONDE DE DON CAMILO
★★ **F3 - 20:50**

Zuz.: Julien Duvivier. Akt.: Fernandel, Gino Cervi. 105m. Frantzia-Italia. 1951.

Guareschiren *Don Camilo* eleberri klasikoaren bertsio zinematografiko garrrantzitsuena, Fernandel komiko ospetsuak paper nagusia egiteko sortutako abentura atsegin entretenigarria da. Zuri-beltzean filmatutako irudiok Camilo apaiza komunistaren

Ane Muñoz

gorabeherak biltzen ditu. Frantzian estreinatu zenean Espainiako frankismo garaia zen eta orduko zentsurak gurean estreinatzea gaitzesi zuen.

CARIÑO, HE ENCOGIDO A LOS NIÑOS
★ **ETB2 - 22:00**

Zuz.: Joe Johnston. Akt.: Rick Moranis, Matt Frewer. 90m. 1991.

Rick Moranis txikitxo des-pistatuak sasi-zientzilari traketsa antzezten du abentura umoretsu eta fantastiko honetan. Esperimentu batekin buru-belarri dabilenean, ustekabean izandako akats baten ondorioz, seme-alabak txiki-txiki egingo ditu. Ongi errealizatua dago, bereziki tamaina ezberdineko dekoratu eta efektu bereziei esker; argumentua eta istorioaren garapena, ordea, ergel samarrak dira. Halere, txikiak entretenitzeko sortu zuten eta, tira, helburua betetzen du, gutxienez.

INTENTO DE ROBO
★ **A3 - 23:45**

Zuz.: Jonathan Heap. Akt.: Rob Lowe, John Savage. 90m. Kanada. 1997.

Egun nahikoa ahaztua badaukagu ere, Rob Lowe estatubatuarra gaztetxo-en idoloa izan zen behin, soil-soilik aurpegi politeko mutila izanagatik bazeen ere. Akziozko zinta komertzial ganorabako honetan begi argiko aktore horrek antzezten du rol nagusia, baina bere lana ez apartekoa ez nabarmena izan, ohi bezain zozo baitabil. Filma pin-ball edota petakoetan aritzen diren gazte batzuen inguruan gartzen da.

ETB-1

07:00: Betimu.
07:25: Betizu. Sherezade printzesa. Hartz txiki. Yogi hartza. Montana.
08:55: Herri musika sorta.
09:15: E-klipse@.
10:25: Jaun eta jabe.
11:30: Benta berri.
12:00: 64.
12:20: Esanak esan.
13:00: Basa-moldeak Afrikan. Dokumentala.
13:25: Iparraldearen orena. Iparraldeko albistegia.
13:35: Betizu.
14:00: Gaur egun. Albistegia.
14:40: Bertatik bertara. Nerea Iriartek aurkeztutako saioa.
15:15: Goenkale.
15:40: Zinema. **Turner eta Hooch** Zuz.: Roger Spottiswoode. Akt.: Tom Hanks, Mare Winningham. 1989.
17:20: Ikusgela.
18:00: Betizu. Gadget inspektorea. Shin Chan. Rocket Power. Betimu.
20:28: Gaur Egun. Albistegia.
21:05: Betishow. Betizu klubaren gala berezia.
22:30: Hasiberriak. Telesaila.
23:00: Bertatik bertara.
00:30: Hau komeria.
00:50: Hiru izar.
01:15: Bakarrik edo...
03:45: Bertatik bertara.
04:15: Esanak esan.
04:40: Elkartasunaren bideak.
04:45: Elkartasunaren bideak.
05:15: Euskal Herriitik.

ETB-2

07:00: Del pais de los vascos.
07:35: Rutas de solidaridad.
08:10: Cafe co-media. La cruda realidad. Radio noticias. Loco por ti. La niñera.
09:30: El punto. Juan Luis Bikuñal aurkeztutako saioa.
10:00: Forum. Gonbidatua: Aurora Navajas.
10:40: Clasicos en serie. La casa de la pradera. Pacific blue.
13:25: Euskadi directo. (EAEn).
13:25: Navarra directo. (Nafarroan).
13:50: El principe de Bel Air.
14:20: Date el bote.
14:58: Teleberri. Albistegia.
15:45: Lo que faltaba.
19:30: Esta es mi gente.
20:58: Teleberri. Albistegia.
22:00: Zinema.

Cariño, he encogido a los niños

Zuz.: Joe Johnston. Akt.: Rick Moranis, Matt Frewer. 1991.
00:45: Cierre del maratón.
01:00: Mas humor.
01:25: Pasados de vueltas.
02:00: Shasta.
02:35: Medias de seda.
04:00: Esta es mi gente.
04:50: Palabra de ley.
05:25: Forum.
05:55: Rutas de solidaridad.
06:25: Cronica sentimental.

TVE1

06:00: Canal 24 horas.
07:30: Telediario matinal. Los desayunos de TVE. Gonbidatua: Pio Cabanillas.
10:15: Pobre diablo. Telesaila.
11:30: Saber vivir. Manuel Torreiglesiasek aurkeztutako saioa.
12:45: Así son las cosas. Manuel Gimenezek aurkeztutako saioa.
14:00: Informativo territorial. Albistegia.
14:30: Corazón de Navidad. Anne Igartiburuk aurkeztutako saioa.
15:00: Telediario 1. Albistegia.
16:00: Eguraldia.
16:05: El secreto. Telesaila.
16:40: Cuando seas mía. Telesaila.
18:40: El precio justo. Telesaila.
20:00: Gente. Sonia Ferrerrek eta Pepa Buenok aurkeztutako magazina.
21:00: Telediario 2. Albistegia.
21:55: Eguraldia.
22:00: Cuentame. Telesaila.
23:15: Nuestro cine.
23:30: Zinema. **Volaverunt** Zuz.: Bigas Luna. Akt.: Aitana Sanchez Gijon, Penelope Cruz.
01:45: Telediario 3. Albistegia.
02:15: Medicos en Los Angeles.
03:00: Canal 24 horas.

A3

07:00: El perro de Flandes. Telesaila.
07:30: Club Megatrix. Ace Ventura. Chico terremoto. Marsupilami.
09:00: Especial informativo.
09:30: El primer café.
10:30: De buena mañana.
13:25: Informativos territoriales. Albistegia.
13:30: Nada es para siempre.
14:00: Sabrina. Telesaila.
14:30: La niñera. Telesaila.
15:00: Antena 3 Noticias 1. Albistegia.
16:00: Yo soy Betty, la fea. Telesaila.
17:00: Sabor a ti. Ana Rosa Quintanak eta Antonio Hidakok aurkeztutako magazina.
19:00: El diario de Patricia.
20:00: Pasapalabra.
21:00: Antena 3 Noticias 2. Albistegia.
22:00: Policías.
23:45: Zinema. **Intento de robo** Zuz.: Jonathan Heap. Akt.: Rob Lowe. 1997.
01:40: Antena 3 Noticias 3. Albistegia.
02:15: Televenta.
04:30: Zinema. **Amigo o enemigo** Zuz.: John Fawcett. Akt.: Chris Penn. 1995.
06:15: La ley de Los Angeles.

irratia



BILBO HIRIA IRRATIA. 08:00etan *Nagiak bota ahala* hasiko da, albisteak eta musika. 10:00etan solasaldia Andolin Eguzkitza, Jabi Lauzurika eta Aitor Zuberogoiarekin. 11:00etatik 14:00etara *Ibaizabal* magazina, Leire Garai-koetxea, Migeltxo Monfort eta Jabi Lauzurikak gidaturik. Bertan, besteak beste: Larrabetzuko Gabonetako ekitaldiei buruzko erreportajea, EHEkoei elkarrizketa, Gasteizko kronika Mario Unamunoren eskutik. 16:00etan, *Baskistan*, munduko musika Mikel Urbeltzen eskutik. 17:00etatik 20:00etara *Ziutateaz* kultur magazina Fermin Etxeგიenek gidaturik.

RADIO EUSKADI. Batasuneko Fernando Barrena elkarrizketatuko dute gaur goizeko 09:00 aldera, *Boulevard* irratia. Arratsaldeko 17:00etan, berriz, Kurala musika taldea gonbidatuko dute *La jungla sonora* saioan.

EUSKADI IRRATIA. Minbizia duten haurren aldeko maratoiaren jarraipena egingo dute goiz osoan zehar *Goizean behin* saioan. Arratsaldeko *Lauretan babel* magazinean gai bera jorratuko dute. 20:00etatik 21:00etara, *Bidela-gun* saioan, Juan Kruz Alberdi geografoa baserria eta baserritarren etorkizunaz mintzatuko da.